

Ohiko galderak (FAQ)

1. Nire ikastaroa 2024ko abuztuaren 15ean amaitu zen. Eska dezaket laguntza deialdi honetan?

Deialdi honetan 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean amaitutako ikasketak aurkez daitezke. Beraz, ikastaroa 2024ko abuztuaren 15ean amaitu bazen, ezin izango da laguntza eskatu.

2. Nire ikastaroa 2025eko irailaren 5ean amaitu zen. Eska dezaket laguntza deialdi honetan?

Deialdi honetan 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean amaitutako ikasketak aurkez daitezke. Beraz, ikastaroa 2025eko irailaren 5ean amaitzen bada, ezingo da laguntza eskatu.

3. Parisko Sorbonako Unibertsitatean aurrez aurreko masterra egin dut. Eska al dezaket laguntza deialdi honetan?

Deialdi honetako laguntzak jaso ahal izateko, etengabeko prestakuntzako eta birziklatze profesionaleko ikasketak zentro edo erakunde nazionalan egin behar dira. Beraz, beste herrialde batzuetako unibertsitateetan/prestakuntza-zentroetan egindakoak kanpoan geratuko dira.

4. Houstongo University of Texas unibertsitatean online master bat egin dut. Eska al dezaket laguntza deialdi honetan?

Deialdi honetako laguntzak eskuratu ahal izateko, etengabeko prestakuntzako eta birziklatze profesionaleko ikasketak zentro edo erakunde nazionalan egin behar dira. Online prestakuntzaren kasuan, ikasketa-zentroak emandako ziurtagirian edo tituluan agertzen dena hartuko da kontuan, eta, halakorik adierazten ez bada, emandako fakturan helbide sozial gisa agertzen dena.

5. Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikaria naiz eta erizaintzako gradua amaitu dut. Laguntza eska dezaket deialdi honetan?

Graduko titulazio ofizial bat lortzera bideratutako ikasketak prestakuntzarako laguntzen deialdi honetatik kanpo daude. Beraz, kasu horretan, ezin da laguntza eskatu.

6. Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetako bat egin dut. Eska al dezaket laguntza deialdi honetan?

Egindako ikastaroa "Osasuna pertsonetikiko konpromisoa" zikloan sartuta ez badago, laguntza eskatu ahal izango da, ziklo horretako ikastaroak Osakidetza finantzatzen baititu.

7. Doktoretza amaitu dut. Laguntza eska dezaket deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, doktoretza-ikasketak deialditik kanpo daude eta.

8. Informatikako erdi-mailako edo goi-mailako LH bat amaitu dut. Eska al dezaket laguntza deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, lanbide-heziketako ikasketak deialditik kanpo baitaude.

9. Osakidetzako EPERako prestatzeko prestakuntza bat egin dut 2020-2021-2022 deialdian. Eska al dezaket laguntza deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, lan publikoko eskaintzak prestatzeko prestakuntza deialditik kanpo baitago.

10. BAME/BAEE/BAFE/etab. prestatzeko ikastaro bat egin dut. Eska al dezaket laguntza deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, prestakuntzan dauden egoiliarren sarrera-probetarako prestakuntza-ikastaroak deialditik kanpo baitaude.

11. Ingeleseko ikastaro aurreratu bat egin dut. Eska dezaket laguntza deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, hizkuntzak ikasteko ikastaroak deialditik kanpo baitaude. Euskararen kasuan, finantzaketa-lerro espezifiko bat dago.

12. Biltzar/Jardunaldi/Sinposio batean parte hartu dut. Eska dezaket laguntza deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, bilera zientifikoetara joatea edo horietan parte hartzea deialditik kanpo baitago.

13. Nire ESlak laguntza partzial bat eman dit prestakuntzarako. Eska dezaket laguntza deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, bateraezina baita Osakidetzako beste edozein zerbitzu-erakundetatik jaso izanarekin.

14. Osasun Sailak prestakuntzarako laguntza bat eman dit. Eska dezaket laguntza deialdi honetan?

Kasu honetan ezin da laguntza eskatu, bateraezina baita Osasun Sailaren laguntza jasotzearekin.

15. Nire udalak / ikasketa-zentroak / elkargo profesionalak prestakuntzarako laguntza bat eman dit. Eska dezaket laguntza deialdi honetan?

Jasotako laguntza ez bada Osakidetzarena edo Osasun Sailarena, bateragarria izango da deialdi honetan aurreikusitako laguntzekin.

16. 2025eko urtarrilean lanean aritu nintzen Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean. Laguntza eska dezaket deialdi honetan?

*Deialdi honetan aurreikusitako laguntza eskatu ahal izateko, eskatzaileak aktibo egon beharko du Osakidetzako web orrian argitaratzen den egunean. Deialdi honetan, egun honetan: **2025/07/23**.*

17. BAME/BAEE/BAPE/BAFE/etab. naiz, eska al dezaket laguntza deialdi honetan?

Barneko langile egoiliarrek deialdi honetan aurreikusitako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte, betiere laguntzaren xede den prestakuntza ez badago sartuta espezialitateko ikasketa-planean.

18. Aurkeztutako laguntza-eskaera 4.000,00 eurotik gorakoa da. Zein izango da emandako laguntzaren zenbatekoa, onartzen bada?

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa matrikularen zenbateko osoaren % 50ekoa izango da, 2.000,00 euroko gehieneko mugarekin. Eskabide bakoitzaren laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, honako faktore hauek hartuko dira kontuan: aurkeztutako eta onartutako eskabideen kopurua, eskabideen zenbatekoa eta "Zuzendariaren txostenaren" balorazioa; eta emaitza 2.000,00 euroko gehieneko muga baino txikiagoa izan daiteke.

19. Aurkeztutako laguntza-eskaerak 1.500,00 eurokoa da. Zein izango da emandako laguntzaren zenbatekoa, onartzen bada?

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa matrikularen guztizko zenbatekoaren % 50ekoa izango da, betiere zenbateko hori 2.000,00 eurotik gorakoa ez bada. Emaitza kalkulatzeko, honako faktore hauek hartuko dira kontuan: onartutako eskaeren kopurua, aurkeztutako eskaeren zenbatekoa eta "Zuzendariaren txostena"ren balorazioa. Kasu honetan, gehieneko zenbatekoa 750,00 eurokoa izango litzateke, baina txikiagoa ere izan liteke, aipatutako faktoreengatik.

20. Aurten bi aditu egin ditut: erizaintzako zainketa kritikoena eta larrialdiena eta emergentziena. Bi laguntza-eskaera aurkez ditzaket?

Eskabide bakarra aurkeztu ahal izango da. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, biak geratuko dira deialditik kanpo, eta ez da laguntza jasotzeko eskubiderik izango.

21. Non aurkez dezaket eskabidea eta eskatutako dokumentazioa?

Dokumentazioa aurkezteko, zure ESiko edo zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzara jotzea gomendatzen dizugu. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren erregistroetan ere aurkeztu ahal izango duzu.

22. Nork sinatu behar du laguntzen deialdian aipatzen den "Zuzendariaren txostena" nire ESlan edo zerbitzu-erakundearen?

"Zuzendariaren txostena" eskatzailearen lanpostuari dagokion arloko zuzendari-lanpostua betetzen duen pertsonak sinatu behar du: zuzendari medikoa, integratioko zuzendaria, erizaintzako zuzendaria, langileen zuzendaria, kudeaketako zuzendaria edo zuzendari-gerentea.

23. Noiz arte aurkez dezaket eskabidea?

***2025eko irailaren 26ra** arte (egun hori barne) aurkeztu ahal izango dira eskabideak.*

24. Laguntza-eskaera aurkeztu dut. Noiz jakingo dut ebatzi den?

Deialdian ezarritakoaren arabera, hiru zerrenda argitaratuko dira Osakidetza web orrian: dokumentazio osoa duten onartutako eskabideak, zuzenketaren bat behar dutenak eta baldintzak ez betetzeagatik baztertu direnak. Deialdiak jasotzen duen 10 eguneko epean aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira, emandako laguntzaren zenbatekoa eta baztertutako eskabideak adierazita. Hori abenduko hirugarren astean argitaratu ohi da.

25. 750,00 euroko laguntza eman didate. Noiz egingo da diru-sarrera?

Oro har, emandako laguntzaren zenbatekoa abenduko nominan jasoko da, eta urtarrilean ordainduko da.

26. Laguntza emateko ebazpenean adierazten da jasoko den zenbatekoa 750,00 eurokoa dela eta kontuan egindako diru-sarrera txikiagoa izan da. Zergatik?

Laguntza hauek PFEZren atxikipenari lotuta daude, eta zenbatekoa kasu bakoitzean dagokion ehunekoaren arabera murriztuko da.

27. Nire lankideak eta biok ikastaro bera egin dugu, baina zenbateko desberdineko laguntza eman didate. Zergatik?

Eskaera bakoitzerako laguntzaren azken zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartzen dira matrikularen zenbatekoa eta dagokion zuzendaritzak egindako balorazioa, eta, horretarako, kontuan hartzen dira prestakuntza-jarduerak lanpostuan izan duen eragina eta zerbitzu-erakundearen programa edo planekiko egokitasuna. Balorazio hori desberdina bada, jasoko den zenbatekoaren emaitza ere desberdina izango da.

28. "Zuzendariaren txostenean", nire eskaerari dagokion prestakuntza 3 batekin baloratu da. Zer ondorio ditu?

Laguntzen deialdiaren arabera, atzera botako dira "Zuzendariaren txostenean" 5 puntura iristen ez diren eskabideak.

29. 3 urteko master bat egiten ari naiz, eta 3 adituk osatzen dute. Aditu bakoitzerako banakako ziurtagiria ematen da, masterraren amaierakoaz gain. Noiz aurkez dezaket laguntza-eskaera?

Kasu horretan, master osoaren amaieran laguntza-eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da (masterraren ziurtagiria eta matrikularen zenbateko gisa masterraren kostu osoa), edo urtero aditu bakoitzeko eskaera bat aurkeztu ahal izango da (adituaren ziurtagiria eta masterreko matrikularen herena, matrikula-zenbateko gisa).

30. 3 urteko master bat egiten ari naiz, eta amaitzean egiaztatzen da. Noiz aurkez dezaket laguntza-eskaera?

Kasu honetan, eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da, masterraren hiru urteak amaitzean. Horretarako, prestakuntza amaitu izanaren ziurtagiria aurkeztuta behar da, eta 3 urtetako matrikularen zenbateko osoa izango da kostua. Ez da onartuko "Lehen ikasturtea amaitu du" motako ziurtagirik.

31. Ikastaroa ordaindu izanaren frogagiri gisa, Internet bidezko transferentziaren ordainagiria/xehetasuna inprimatu dut. Baliozkoa al da egiaztagiri hori?

Baliozkoa izango da inprimatu ondoren bankuaren zigilua badu.

32. Ikastaroa ordaindu izanaren frogagiri gisa, ikastaroaren kostuaren faktura aurkeztu dut. Baliozkoa al da egiaztagiri hori?

Faktura baliozkoa izan dadin, ikasketa-zentroko organo eskudunaren sinadura eta zigilua izan behar ditu, eta faktura ordaindu dela jasota egon beharko da. Transferentzia bidez ordaindu behar dela adierazita badago, bankuko abonu-agiria edo transferentziaren xehetasuna aurkeztu beharko da.

33. Oraindik ez dut adituaren titulua jaso. Zer egiaztagiri aurkez dezaket?

Titulua eskatu izanaren eta tasen ordainketa eginaren dokumentazioa aurkez dezakezu, edo prestakuntza-zentroaren egiaztagiri bat prestakuntzaren amaiera-data adierazita duena (sinatuta eta zigilatuta), eta, gainera, ikastaroaren kostua jasoko balu, ziurtagiri horrek berak balioko lizuke ordaindutako zenbatekoa justifikatzeko.

34. Prestakuntzaren tituluan ez da amaiera-data adierazten. Zer egiaztagiri aurkez dezaket?

Ikastaroaren amaiera-data ez badago jasota ikastaroaren programan, prestakuntza-zentroak dagokion amaiera-data ziurtatu beharko du (sinatutako eta zigilatutako ziurtagiri bat).